



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

EUSKARA ZERBITZUA	SERVICIO DE EUSKERA
<b>AZKOITIKO ENPRESETAN EUSKARA PLANAK SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK</b>	<b>BASES REGULADORAS DE SUBVENCIONES PARA LA PROMOCIÓN DE PLANES DE EUSKERA EN EMPRESAS DE AZKOITIA</b>
<p><b>1. artikulua. Xedea.</b></p> <p>Diru-laguntza honen xedea da Azkoitiko enpresak euskararen erabilera-planak egitera edota garatzera bultzatzea.</p> <p>Oinarri hauen xedea da LanHitz programa markoaren baitan jasotako Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) definitutako helburuak, jardunak eta jarduerak burutzeko baliabideak ezartzea.</p>	<p><b>Artículo 1. Objeto.</b></p> <p>El objeto de las presentes subvenciones es promover la elaboración o el desarrollo de planes de uso de euskera en las empresas de Azkoitia.</p> <p>Estas bases pretenden dotar de recursos que ayuden en el cumplimiento de los objetivos y actividades definidas en el Marco de Referencia Estándar (EME) programa marco recogido en LanHitz.</p>
<p><b>2. artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa.</b></p> <p>Azkoitiko Udalak enpresa bakoitzari emango dion gehieneko diru-laguntza urteko 2.000,00 eurokoa izango da, eta Jaurlearitzak xede berarekin emandako diru-laguntzaren osagarri izango da. Betiere, laguntza-gaitzat jo diren gastuen %33 artekoa izango da Azkoitiko Udalak emango duen gehieneko diru-laguntza.</p> <p>Laguntzetarako aurreikusitako diru izendapena goian adierazitako gehieneko 2.000,00 euroak emateko bestekoa ez bada, diru-laguntza gutxitu egingo da eta enpresa onuradun guztien artean proportzio berean banatuko da.</p>	<p><b>Artículo 2. Importe de las subvenciones.</b></p> <p>La cantidad máxima que dará como subvención el Ayuntamiento de Azkoitia a cada empresa será de 2.000,00 euros anuales, y complementará la subvención concedida con los mismos fines por el Gobierno Vasco. La cantidad máxima que subvencione el Ayuntamiento de Azkoitia será hasta el 33% de los gastos objeto de subvención.</p> <p>En el caso de que la consignación presupuestaria prevista para estas ayudas fuese insuficiente para poder conceder el porcentaje máximo de 2.000,00 euros, se reducirá el importe de la subvención, y se prorrateará entre todas las empresas beneficiarias, del máximo global destinado a las ayudas.</p>
<p><b>3. artikulua. Onuradunak.</b></p> <p>Honako baldintza hauek betetzen dituzten enpresa guztiek eska dezakete diru-laguntza:</p> <p>- Egoitza soziala eta fiskala Azkoitian izatea.</p>	<p><b>Artículo 3. Beneficiarios.</b></p> <p>Pueden solicitar subvención las empresas que reúnan los siguientes requisitos:</p>



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

<p>- Irekiera baimena izatea.</p> <p>- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan ezarritako klausuren baten pean ez egotea.</p> <p>- Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Azkoitiko Udalarekikoak egunean izatea.</p> <p>- Euskara plana diru-laguntza ematen den ekitaldian diseinatutakoa izatea, edo aurreko urteetan diseinatutakoa izan arren, urte horretan garatzen aritzea.</p> <p>- Erabilera plana garatzeko eskaera egina eta onartua izatea, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak EAEko lantokietan euskararen erabilera plana egin edota garatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duen urte bereko Aginduaren arabera.</p> <p>Lehentasuna izango dute lehen urteko diseinua eta plana egiten dutenek.</p> <p>Diru-laguntza hauek beste administrazio edo erakunde batzuk emandakoekin bateragarriak izango dira.</p> <p><b>4. artikulua. Eskaerak aurkeztea.</b></p> <p>Interesatuak Oinarri Orokorretan arautzen den eskaerarekin batera <u>ondorengo agiriak</u> aurkeztu beharko dituzte:</p> <p>- EAEko lantokietan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak araututakoaren arabera, euskara planak egin edota garatzeko, eskaera egiten den urte berean aurkeztutako aurrekontuaren fotokopia. Ekitaldiko deialdia egiteke badago, enpresak Azkoitiko Udalari horren herri emango dio eta eskaera hori aurkeztu bezain</p>	<p>- Disponer de domicilio social y fiscal en Azkoitia.</p> <p>- Disponer de licencia de apertura.</p> <p>- No estar incurso en ninguna de las causas establecidas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 del 17 de noviembre.</p> <p>- Estar al corriente de las obligaciones fiscales, y las obligaciones frente a la Seguridad Social, así como con las del Ayuntamiento de Azkoitia.</p> <p>- Que el plan de euskera esté diseñado en el ejercicio en el que se conceda la subvención, o a pesar de haberse diseñado con anterioridad, se esté desarrollando durante el mismo.</p> <p>- Que la solicitud para el desarrollo del plan de euskera esté aceptada, por la Orden del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco que regula el sistema de subvenciones para la elaboración o el desarrollo de planes de euskera en los centros de trabajo de la CAV correspondiente al año en curso.</p> <p>Tendrán prioridad aquellas empresas que diseñen el plan para el primer año.</p> <p>Estas ayudas serán compatibles con las que pudieran ser otorgadas por otras administraciones u organismos.</p> <p><b>Artículo 4. Presentación de solicitudes.</b></p> <p>Los interesados junto con al impreso de solicitud regulado en las Bases Generales deberán presentar <u>la documentación indicada a continuación:</u></p> <p>- Presupuesto presentado el mismo año a fin de solicitar las subvenciones para la elaboración o el desarrollo de planes de uso del euskera en los centros de trabajo de la CAV reguladas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco. Si la convocatoria del</p>
--	--



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

<p>laster, horren fotokopia Azkoitiko Udalean aurkeztuko du.</p> <p>Udalak beharrezko deritzon informazio osagarria eskatu ahal izango die erakunde eskatzaileei, aurkeztutako egitasmoaren balorazioa egin ahal izateko.</p>	<p>ejercicio no se ha efectuado se informará al Ayuntamiento de Azkoitia al respecto y tan pronto como se presente dicha solicitud se presentará fotocopia de la misma en el Ayuntamiento de Azkoitia.</p> <p>El Ayuntamiento podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta información complementaria estime necesaria en orden a la valoración del proyecto presentado.</p>
<p><b>5. artikulua. Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.</b></p> <p>5.1. Lehen urteko euskara plana izatea: 50 puntu.</p> <p>5.2. Plana aurreko urteetan diseinatutakoa izatea, baina urte horretan ere garatzen aritzea: 30 puntu.</p> <p>5.3. Planaren autofinantziazio maila: 20 puntura arte. Zenbat eta autofinantziazio handiagoa izan, orduan eta puntu gehiago emango da.</p>	<p><b>Artículo 5. Criterios para la adjudicación de las subvenciones.</b></p> <p>5.1. Que sea el primer año de diseño de implantación del plan de euskera: 50 puntos.</p> <p>5.2. Que el plan de euskera esté diseñado en años anteriores, pero se siga implementando durante el año en curso: 30 puntos.</p> <p>5.3. Nivel de autofinanciación del plan: Hasta 20 puntos. Se obtendrán más puntos, cuanto mayor sea el nivel de autofinanciación.</p>
<p><b>6. artikulua. Diru-laguntza eskaerak aztertzea eta ematea.</b></p> <p>Diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka sistemaren bidez tramitatuko da.</p> <p>Euskara teknikariak aurkeztutako egitasmoak aztertu eta ebaluatuko ditu zeinek erabakiko ditu lehenetsiak eta egitasmoentzako zenbatekoak. Ondoren, behin betiko erabakiaren txostena egingo du. Eskaerak jasotzeko azken egunaren biharamunetik aurrera, hilabeteko epean, proposamena diru-laguntzak ebazteko ahalmena duen udal organoari, edo honek eskuordetutakoari, emango zaio honek aztertu eta onartu dezan.</p> <p>Emandako ebazpena idatziz jakinaraziko zaie eskaera egin dutenei.</p>	<p><b>Artículo 6. Evaluación y resolución de las solicitudes de subvención.</b></p> <p>El procedimiento de concesión de subvenciones se tramitará en régimen de concurrencia competitiva.</p> <p>El personal técnico de euskera analizará y evaluará las solicitudes presentadas y establecerá las preferencias y los importes de las subvenciones. A continuación, redactará el informe correspondiente a la resolución definitiva. A partir del día siguiente del fin del plazo para la presentación de instancias y en el plazo de un mes, se presentará la propuesta al órgano municipal competente o éste a su delegado, para su posterior análisis y aprobación.</p> <p>La resolución se notificará por escrito a los solicitantes.</p>



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**7. artikulua. Onuradunen betebeharrak.**

Diruz lagundutako ekintzak burutu ondoren, eta nolanahi ere, urte bakoitzeko azaroaren 25a baino lehen, jasotako diru-laguntzaren frogagiriak aurkeztu beharko dituzte Azkoitiko Udaleko Euskara Zerbitzuan. Justifikazio hori egin ahal izateko, Oinarri Orokorretan araututako dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira.

**8. artikulua. Diru-laguntzen ordainketa.**

Ordainketa bakarra egingo da, baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu eta gastua egin eta frogatu ondoren, behin diru-laguntza ematea erabaki eta gehienez bi hilabeteko epean.

**Artículo 7. Obligaciones de las empresas beneficiarias.**

Tras la finalización de la ejecución de las actividades subvencionadas, y en todo caso, antes del 25 de noviembre de cada año, se deberá presentar la justificación de la subvención concedida en el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Azkoitia. Dicha justificación contará con todos los documentos regulados en las Bases Generales.

**Artículo 8. Pago de las subvenciones.**

Se efectuará un pago único, previa justificación del cumplimiento de todos los requisitos e incursión y acreditación del gasto, una vez concedida la subvención en un plazo máximo de dos meses.